


udal**top**

II. Udaltop Topaketak
**Talde-lanean
ateratako ideiak**

Antolatzaileak



Laguntzaileak



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako
Saillburuordetza

➤ **Ideiak, jarritako galderen arabera sailkatuta**

- **Udal teknikariez osatutako taldeetako galderak eta bildutako ideiak (1, 2 eta 3 taldeak)**

- **Galderak:**

1.- Ados zaude Pello Jauregik nerabeen hizkuntza-aldaketa eragiteko planteatzen duen ereduarekin? Eragingarria eta egingarria ikusten duzu? Nola? Eta Udaletatik nola sustatu daiteke?

2.- Lanerako metodologia bera eskaini behar al diegu jarduera-mota guztietako "dinamizatzailerik"? Alegia, jarduera berariaz euskararen erabilera sustatzeko denean (jo dezagun udaleku batzuk edo Kuadrillategi gisako programa bateko hezitzailea) eta aisiako beste edozein jarduera denean (jo dezagun kulturako edo kiroleko monitore bat).

- **Ideiak:**

1. TALDEA (Antotxa).

a) Udaletik egiten den edozein eskaintza formaletan (gizarte zerbitzuak, kirolak, gazteria, kultura) bermatu hizkuntza irizpideak txertatzea deialdian. Irizpideak adostu bai euskara batzordeetan, bai dagokion sailean. Laguntzak eta erraztasunak emateaz gain, finkatutako irizpideen jarraipena eta ebaluazioa egin, hutsuneak identifikatu eta arduradunei hobekuntzak planteatzeko.

Neurri hau oinarri-oinarrizkotzat jo du taldeak, gutxieneko neurri modura alegia.

b) Eskaintza formala eta informala lotu eta gune informaletan eragiteko prestatzen ditugun interbentzioetan desoreka sortu. Erreferente edo lider izan daitezkeen eragileak aprobetxatu, Pellok proposatutakoaren bidetik (12-15 eta 16-18 adin tartekoak elkarrekin). Horretarako, dagoeneko sortuak dauden harremanak landu lehendabizi, adibidez, entrenamenduetan oso ohikoa da helduxeagoak gaztetxoentzako izatea. Halako harremanik ez dagoenean, berriak sortu, beti ere, interbentzioen helburua desoreka sortzea izanik.

c) Hizkuntza normalizazioan gabiltzanok jarrera ausarta izan behar dugu, beldurrik ez diogu izan behar probatzeari, esperimintatzeari, arriskuak hartzeari. Horretarako, sormen lanaren garrantzia azpimarratu da, baina hori bezain garrantzitsutzat jo da dauden esperientziak aprobetxatzea: hizkuntza normalizazioan sortu diren egitasmoak exportatu, bakoitzaren errealitatera egokitu, probak egin eta elkarlanean hobetzeko bideak jorratu.

d) Euskara zerbitzuak produktuan baino gehiago zentratu behar du hartzaileen beharretan. Nerabe eta gazteengana iristeko nola landu komunikazio kanalak? Kolektibo horren beharrianak eta nahiak ezagutzeko ekintzak sortzea ezinbestekoa da.

e) Nerabe eta gazteen hizkuntza gaitasuna lantzeko ekintzak bultzatu, batik bat, ahozkotasunari emanaz lehentasuna. Maila akademikoan egin daiteke lan hori eta horrek isla izango luke maila informalean (aisialdian, eskola orduz kanpoko ekintzetan).

2. TALDEA (Burunzpe).

a) Pertsona edo talde erreferenteak baliatzea beste talde gazteago batzuen hizkuntzak aldatzeko baliagarri ikusten da. Zenbaitetan, euskaraz egiten duten talde naturalak egon daitezke herrian, beste gazteentzako eredu eta erreferente.

Besteetan, berriz, ez da talde naturalik egongo herrian, eta halakoetan, aurrelana egin beharko da 15-16 urteko taldearekin pertzepzio edo hautemateetan eragiteko (Urtxintxaren bidetik, *Begiraleak asko egin dezake* materiala, e.a.).

b) Gazteekin lanean dihardugunean, eskaintza erakargarria izatea lortu behar da, helburua ondo pasatzea baita. Eta zer behar duten jakiteko, eurei galdetzea da zuzenena eta egokiena.

Zein kultur eredu bultzatu behar den hitz egiterakoan, eztabaida sortu da gure artean: zein motatako kultur jarduerak bultzatu behar ditugu?

c) Euskara zehar lerroa da, beraz, kuadrilategi edo euskara zerbitzuko ekintzetan erabiltzen diren irizpideak udaletako gainerako zerbitzuetara ere zabaltzea beharra ikusi da. Horretarako, udaleko zerbitzuei baliabideak eskaini behar dizkie euskara zerbitzuak, hau da, hizkuntz irizpideak, estrategiak, ikastaroak, argumentu eta koherentziaz jokatzeko jarduera guztietan.

Bide nekeza izan daiteke hau, baina ibili beharrekoa.

d) Adina oso zabala da, eta segmentatu beharra ikusten da, zaku handiegia da, zaletasun, jokaera eta ohitura ezberdinekin.

Bestalde, nerabezaroa hizkuntz ohiturak aldatzeko adinik onena ote den zalantzan jarri da helduei begira daudelako, eta helduen arteko gizarte harremanetan koherentzia falta dagoelako. Gainera, garai horretan gazteak “aske” samar ibili nahi dute..,

3. TALDEA (Erribera).

a) Gazteen guneetara hurbildu (lonja...) autonomia eta babes eskainiz, zer nahi duten jakiteko.

Adibidea: lonjak kudeatzeko ordenantza egin: eskubide eta betebeharrak zehaztu. Lonjen jabeek komuna izango zaien ordenantza idaztea; eta, horretaz gain, gazteei diru laguntza bat ematea zerbait antolatzeke. Baina antolaketa bideratua izan beharko luke, hau da, gazteei ardura batzuk jarri behar litzaizkieke: ingurumena, berdintasuna eta hizkuntza adibidez.

b) sare sozialen bidez nerabeengan eragitea.

Adibidea: izar distirarekin tuentia urte osoan irekita eta erabilgarri.

c) Nagusien taldeak txikien taldearekin harremanetan jarri.

Adibidea: udaleku irekietarako alternatiba, etorkinekin, berbalagunekin.

d) Liderrekin saiatzea.

- Udal teknikariez osatutako taldeetako galderak eta bildutako ideiak (4, 5 eta 6 taldeak)

- Galderak:

1.- Udal departamentuetatik bideratutako aisia antolatuan eragiteaz gain lagunarteko hizkuntza-harremanetan eragiteko lanik egin liteke/komeni da Udaletik? Nola?

2.- Gazteen sormena baliatu behar dugu, dagoena indartu eta proposamen berriak abian jartzeko; beraien beharrei erantzun behar diegu. Baina nola? Herri bakoitzean gazteei galdetuz? Teknologia berrien erabilera bultzatuz.

3.- Gizarte sareetan nola zabaldu eta kutsatu euskaraz hitz egiteko ohitura? Zein urrats eman ditzakegu Euskara Zerbitzutik edo Gazteria Zerbitzutik edo biak elkarrekin.

- Ideiak:

4. TALDEA (Gonagorri).

a) Euskara Zerbitzuak zehar lerroa izan behar du. Udalak dagoeneko bideratzen duen aisialdi antolatuan hizkuntza-irizpideak ezarri eta irizpide horien jarraipena egin behar du. Langintza honetan motibazio-saioak premiazkoak dira bai gazteei baita hezitzaileei ere.

b) Zirikatze-lana egin behar da gazte-taldeetako liderrekin gazte-taldeak beren sormenez baliatuta aisialdi-ekintzak antolatu eta ekintza horien ardura har dezaten (promozioa egiteko sare-sozialak erabiliz adibidez). Udalak ekintza horiek aurrera eramateko baliabideak jarriko

c) Sare sozialetan euskararen erabilera areagotzeko, edota erabilera sustatzeko lehiaketak antola daitezke. (SMS edo Piropoen lehiaketetan jarraitutako bidea erabiliz).

5. TALDEA (Muntteri).

a) Lehenik eta behin, Udalak, Euskara batzordearen laguntzarekin, euskararen erabilera normalizatzeko irizpide argiak onartu beharko lituzke, eta gero, gazteekin harremanak dituzten udaletxeko gainerako atalekin harremanak estutu beharko lituzke, eta lana elkarrekin sarean egiteko bidea markatu.

Herriko eragileekiko elkarlana bultzatu beharko luke udalak gainera, eta gazteengan konfiantza jarri eta haiengan utzi ekintzak aurrera eramateko ardura.

Bestalde, antolatutako aisian eragiteko bideak ireki beharko luke Udalak, zeharkatasun lerroa landu, gazteen dendak, topalekuak.....

b) Teknologia berrien erabilera trebatu egin beharko ginateke; teknologia horiek nahi duguna probatzeko erabiltzen ikasi beharko genuke.

Administrazioak zerbaiten berri emateko erabiltzen ditu twitter eta abarrak. Baina

gazteak mundu informalean mugitzen dira. Gazteengana modu egokian heltzeko dagoen jauzia gainditzeko zer egin?

Erreferente diren pertsonaiekin txat bideratuak antolatzea litzateke gazteengana heltzeko modu bat. Beraien gustuko sareko guneak erabiliz, eguna eta ordua jarri jende ezagunarekin txateatzeko.

c) Udalak gazteei beraiek galdetu beharko lieke zer nahi duten eta hartara bideratu indarrak. Gazteen nahiak antzemateko ideia lehiaketa antolatu lezake udalak.

Aldizkariak nolakoak nahi dituzten jakiteko bide zuzenenena ere beraiei galdetzea litzateke, eta haiek nahi dituzten edukiez osatzea publikazioa.

d) Sare sozialen erabilerarako lidergoaz baliatzea. Erakundea eremu formalegia da gazteentzat. Beraz, beraien aisiko gune ezberdinetako liderrez baliatu beharko ginatke beraingana heltzeko.

Talde natural mailan lan egin beharko genuke, kultur ekintzak, aisialdi elkarteak.... Osatuta dauden taldeak aprobeztatuz, eta horietan lidergoaz baliatuz.

e) Talde naturalak euskuhatzeko hitzezko jardunak antolatu (mihiluzeren antzekoak)

Liderrak identifikatzeko, hizkuntzarekiko atxikimendu gehiago dutenak dira guri interesatzen zaizkigunak..

Ulibarri programan Mintzagramak erabiltzen dira. Mintzagramak horiek ere erabili daiteke liderrak detektatzeko.

Gaztelekua izan daiteke liderrak detektatzeko beste toki bat.

6. TALDEA (Osiña).

a) Elkarlana. Konpartimentuak gaindituz, gizarte sareak osatu elkarlanean aritzeko. Gune iraunkorretan sortu lanerako. Beharrezkoa da gazteengana iristeko. Euskarak zehar lerroa izan behar du.

b) Nerabe eta gazteen interesak jaso elkarlanean proiektu bat adosteko, euren behar eta gogoei eragingo diena. Parte hartze aktiboa bilatu, boterearekin. Gazteek subjektu izan behar dute, protagonismoa eman, proiektuaren parte egin.

c) Liderren bidez, gure izarren bidez, eragin. Hauen bidez sustapenean eragin daiteke modu ez instituzional batetik.

d) Hizkuntzari dagokionez liderrak diren gazteak identifikatu eta eurekin lan egin dezake udalak (dena delako departamentutik), eurek sare sozialen bidez inguru hurbileko harreman hizkuntzan eragiteko.

- Udaletakoak ez diren teknikariez osatutako taldeetako galderak eta bildutako ideiak (7 eta 8 taldeak)

- Galderak:

1.- Gizarte sareetan – internet- nola zabaldu eta kutsatu euskaraz hitz egiteko ohitura? Zein urrats eman ditzakegu?

2.- Sare sozialen erabilera-datuak eskuetan, ba al dago erabiltzaile euskaldunari proposatu dakioken erabilerarako gomendiorik? Besteak beste, birziklatze-ohiturak hobetzeko zer egin esaten digute, iragarki eta bestelakoen bidez. Antzekorik egin al daiteke gazteei begira.

3.- Protagonismoa eman zaie nerabeei, nola?

- Ideiak:

7. TALDEA (Oztaran).

a) Sare sozialetan arrakasta handiagoa da gertuko pertsonen bidez egiten bada esku-hartzea. Hobe da elkarte moduan baino, hurbileko pertsona (begirale) moduan aritzea; euskalkia erabiltzeak gertutasuna eta era informala adierazten lagundu dezake.

b) Hizkuntza ez-formala landu, sortu (zuzentasunaren mamua uxatu) eta zabaldu behar da, nerabeei ereduak eta hitza emanez. Eskoletan hasi behar da hizkuntza ez-formalari tartea egiten: ekintza bat eurek “hizkera-gida sare sozialetarako” sortzea.

c) Emozioek mugitzen gaituzte: arrakasta duten egitasmoak eta ekintzak etengabe berraztertu eta egokitu/aldatu beharra.

d) Nerabeei gomendioak ematea baino, hobe erreferente eta eredu bidez lantzea: hurbileko pertsonak erreferente izatea; pertsona ezagunen/ospetsuen erreferenteak ematea.

8. TALDEA (Saltsate).

a) Protagonismoa nerabeei eman behar diegu, prozesu guztian zehar, hasiera-hasieratik. Sortu-gozatu eta egindakoaren inguruko hausnarketarako bideak eskaini behar dizkiegu, gero beraiek hautatu dezaten.

b) Nerabeei duten nitasuna-gutasuna edota arrunta-berezia izatearen artean perspektiba aldaketa bat eragin behar dugu: arretagunea erabileran jarri beharrian, euskal identitatean jarri beharko genuke. Hizkuntzan ardaztu identitatea; ardatza identitatea, nortasuna izatea begirale, irakasle eta bestelakoekin gaia lantzerakoan. Nerabeekin "gu" indartu -identitatea

c) Sare-sozialak (fisikoak zein birtualak) sendotu behar dira:
- garena txertatu behar dugu sortuta daudenetan.

- elkarlanean aritu behar gara

d) Arriskuak hartu behar ditugu, ausartago jokatu; horretarako euskaldun izatearekin lotutako klitxeak apurtu behar dira eta eskuhartzea hartzaileen arabera finkatu (euskaldu nahi dutenak eta deseuskaldu daitezkeenak bere behar dira.)

▪ Udaletakoak ez diren teknikariez osatutako taldeetako galderak eta bildutako ideiak (9 , 10 eta 11 taldeak)

▪ Galderak:

- 1.- Gazteen artean alderdi emozionala –atxikipena- lantzeko ze urrats eman behar dira.
- 2.- Gazte euskaldunen autoestimuan eragin beharrik ikusten al da? Autoestimua indartuta jarrerak aldatuko al dituzte? Nola landu daiteke autoestimua gazteengan?.
- 3.- Gazteen artean elkarrizketa elebidunak (euskaraz egitea nahiz eta aurrekoak erdaraz egin – aurrekoak euskaraz ulertzen duen kasuetan) bultzatzeko aukerarik ikusten al da?

▪ Ideiak

9. TALDEA (Urbitate).

a) Gazteen artean alderdi emozionala -atxikipena- lantzeko guk gauzak agerian uztea da egiten den proposamena: kontzientzia, bihotza, gogoeta...
Norbera konturatzea da gakoa. Baina interbentzioak ez dira bakarrik nerabezaroan egin behar, beste adin-tarte batzuetan egin behar dira, adibidez, 30 urte inguruko artean (hauek batzuetan ez daukate zein hizkuntzatan hitz egiten duten kontzientziarik ere ...)

b) Gazteen artean elkarrizketa elebidunak bultzatzeari dagokionez, hurrengo hausnarketa egin da:

Nerabeek naturaltasun osoz ikusi beharko lukete bi hizkuntza izatearena.

Hedabideek eredu hori zabaldu beharko lukete:

*Teleberrietan subtituluak jarritz

*Arrakasta programetan “reality”-ak euskara ere entzutea (subtituluak) ezinbestekoa da eredu hori bultzatzeko. Adibidez: gaztetxoek Julian Iantzi gaztelaniarekin lotzen dute bakarrik... zergatik ezin da euskara entzun bere programan, programa gaztelaniaz izanda ere? zergatik ez dute euskara egiten, naturaltasun osoz, euskara dakitenen artean, nahiz eta besteekin gaztelaniaz egin?

c) Hizkuntzari buruzko formazio eta informazio gehiago behar da. Txikitatik hasita, izan ere, prozesua progresiboa da.

Autoestimuan eragiteko TELP jolas moduan hartzea proposatzen da.

10. TALDEA (Zumau).

a) Gazteekin orain arte ez da alderdi emozionala landu (eta hori oso lotua dago autoestimuekin), ez behintzat modu integralean. Eta gure ustez, oinarri emozional horretan daude hizkuntza-portaeraren gakoak. Hori lantzeko:

Hainbat diziplinaren arabera azterketa egingo genuke, errealitate sozio-psiko-linguistikoa ezagutzeko.

Hurrengo urratsa gazteak erakartzea da, eta planaren diseinuan parte hartzera gonbidatu. Horretarako, komunikazio kanpaina on bat egin beharko genuke, esparru guztiak kontuan hartuta (eskola, ikastetxea, familia, elkarteak, txokoak...)

Hizkuntzarekiko atxikimenduari dagokionez, sentimenduaren eta erabileraren arteko koherentzia landu.

Erreferenteak eta lidergoa landuko genituzke (arrakastarako ezinbesteko tresna edo baliabideak direlako).

b) Gazteek kontsumitzen dituzten euskal hedabideetan egoera horiek (elkarrizketa elebidunak) “modu barregarri, original, esperpentiko...” batean erre kreatzea.

1. fase baten helburua izango litzateke gazteak hizkuntza egoera horretaz ohartaraztea. Hurrengo faseen helburua 1. fasearen ondorioen arabera lirateke

11. TALDEA (Abalotz).

a) Diagnosi egokiak, tokian tokikoak, nerabeen parte hartzearekin egindakoak, abiapuntuko egoera ondo zedarrizteko.

Zelako gazteak (ezaugarriak...)

Zer gura daben

Nerabeon erreferenteak zein diren

Nerabeon hizkuntza ohiturak eta hizkuntza gaitasun erreala

b) Sentiberatzean eragin baina zuzenean helduengan ergaiez eta, nerabeengan zeharkako teknikak erabiliz. usteak aztertu eta haietan eragin... Nerabeen inguru hurbila osatzen duten helduengan arreta berezia jarritz.

c) Udalen eta herriko eragileen arteko koordinazioa landu eta bermatu. Udalak sustatu eta herriko elkarteek zuzenean eragitea litzateke egokiena. **Udalen eta herriko eragileen arteko koordinazioa... Nerabeek proposatu - Udalak sustatu - herriko elkarteek antolatu** nerabeen partaidetzaz eta **nerabeek protagonista** izanik. Aisialdi taldeetan partaide izatetik, **gidari izatera igarotzeko aukera** eskaini. **Euskara zehar-lerro** udal jarduera guztietan.

d) Hiztunen (nerabeen kasu honetan (hizkuntza gaitasuna hobetu (erregistroak...) eta euskaraz jarduteko arnas guneak bermatu eta ugaltu.

➤ **Ideiak, udal bateko euskara teknikari baten zereginetara hurbilduta**

▪ **Idea orokorrak**

1.c) Hizkuntza normalizazioan gabiltzanok jarrera ausarta izan behar dugu, beldurrik ez diogu izan behar probatzeari, esperimentatzeari, arriskuak hartzeari. Horretarako, sormen lanaren garrantzia azpimarratu da, baina hori bezain garrantzitsutzat jo da dauden esperientziak aprobeztatzea: hizkuntza normalizazioan sortu diren egitasmoak exportatu, bakoitzaren errealiterara egokitu, probak egin eta elkarlanean hobetzeko bideak jorratu.

1.d) Euskara zerbitzuak produktuan baino gehiago zentratu behar du hartzaileen beharretan. Nerabe eta gazteengana iristeko nola landu komunikazio kanalak? Kolektibo horren beharrianak eta nahiak ezagutzeko ekintzak sortzea ezinbestekoa da.

1.e) Nerabe eta gazteen hizkuntza gaitasuna lantzeko ekintzak bultzatu, batik bat, ahozkotasunari emanaz lehentasuna. Maila akademikoan egin daiteke lan hori eta horrek isla izango luke maila informalean (aisialdian, eskola orduz kanpoko ekintzetan).

2.a) Pertsona edo talde erreferenteak baliatzea beste talde gazteago batzuen hizkuntzak aldatzeko baliagarri ikusten da. Zenbaitetan, euskaraz egiten duten talde naturalak egon daitezke herrian, beste gazteentzako eredu eta erreferente. Besteetan, berriz, ez da talde naturalik egongo herrian, eta halakoetan, aurrelana egin beharko da 15-16 urteko taldearekin pertzepzio edo hautemateetan eragiteko (Urtxintxaren bidetik, *Begiraleak asko egin dezake* materiala, e.a.).

2.b) Gazteekin lanean dihardugunean, eskaintza erakargarria izatea lortu behar da, helburua ondo pasatzea baita. Eta zer behar duten jakiteko, euren galdetzea da zuzenena eta egokiena. Zein kultur eredu bultzatu behar den hitz egiterakoan, eztabaida sortu da gure artean: zein motatako kultur jarduerak bultzatu behar ditugu?

2.c) Euskara zehar lerroa da, beraz, kuadrilategi edo euskara zerbitzuko ekintzetan erabiltzen diren irizpideak udaletako gainerako zerbitzuetara ere zabaltzea beharra ikusi da. Horretarako, udaleko zerbitzuei baliabideak eskaini behar dizkie euskara zerbitzuak, hau da, hizkuntz irizpideak, estrategiak, ikastaroak, argumentu eta koherentziaz jokatzeko jarduera guztietan. Bide nekeza izan daiteke hau, baina ibili beharrekoa.

5.b) Teknologia berrien erabileran trebatu egin beharko ginateke; teknologia horiek nahi duguna probokatzeko erabiltzen ikasi beharko genuke. Administrazioak zerbaiten berri emateko erabiltzen ditu Twitter eta abarrak. Baina gazteak mundu informalean mugitzen dira. Gazteengana modu egokian heltzeko dagoen jautzia gaintzeko zer egin? Erreferente diren pertsonaiekin txat bideratuak antolatzea litzateke gazteengana

heltzeko modu bat. Beraien gustuko sareko guneak erabiliz, eguna eta ordua jarri jende ezagunarekin txateatzeko.

5.c) Udalak gaztei beraiek galdetu beharko lieke zer nahi duten eta hartara bideratu indarrak. Gazteen nahiak antzemateko ideia lehiaketa antolatu lezake udalak. Aldizkariak nolakoak nahi dituzten jakiteko bide zuzenenena ere beraiei galdetzea litzateke, eta haiek nahi dituzten edukiez osatzea publikazioa.

5.d) Sare sozialen erabilerarako lidergoaz baliatzea. Erakundea eremua formalegia da gazteentzat. Beraz, beraien aisiako gune ezberdinetako liderrez baliatu beharko ginateteke beraiegana heltzeko.

Talde natural mailan lan egin beharko genuke, kultur ekintzak, aisialdi elkarteak... Osatuta dauden taldeak aprobetxatuz, eta horietan lidergoaz baliatuz.

6.b) Nerabe eta gazteen interesak jaso elkarlanean proiektu bat adosteko, euren behar eta gogoei eragingo diena. Parte hartze aktiboa bilatu, boterearekin. Gazteek subjektu izan behar dute, protagonismoa eman, proiektuaren parte egin.

6.c) Liderren bidez, gure izarren bidez, eragin. Hauen bidez sustapenean eragin daiteke modu ez instituzional batetik.

7.b) Hizkuntza ez-formala landu, sortu (zuzentasunaren mamua uxatu) eta zabaldu behar da, nerabeei ereduak eta hitza emanez. Eskoletan hasi behar da hizkuntza ez-formalari tartea egiten: ekintza bat eurek “hizkera-gida sare sozialetarako” sortzea.

7.c) Emozioek mugitzen gaituzte: arrakasta duten egitasmoak eta ekintzak etengabe berraztertu eta egokitu/aldatu beharra.

7.d) Nerabeei gomendioak ematea baino, hobe erreferente eta eredu bidez lantzea: hurbileko pertsonak erreferente izatea; pertsona ezagunen/ospetsuen erreferenteak ematea.

8.a) Protagonismoa nerabeei eman behar diegu, prozesu guztian zehar, hasiera-hasieratik. Sortu-gozatu eta egindakoaren inguruko hausnarketarako bideak eskaini behar dizkiegu, gero beraiek hautatu dezaten.

8.b) Nerabeek duten nitasuna-gutasuna edota arrunta-berezia izatearen artean perspektiba aldaketa bat eragin behar dugu: arretagunea erabileran jarri beharrean, euskal identitatean jarri beharko genuke. Hizkuntzan ardaztu identitatea; ardatza identitatea, nortasuna izatea begirale, irakasle eta bestelakoekin gaia lantzerakoan. Nerabeekin "gu" indartu –identitatea

8.c) Sare-sozialak (fisikoak zein birtualak) sendotu behar dira:

- **garena txertatu** behar dugu sortuta daudenetan.

- **elkarlanean** aritu behar gara

8.d) Arriskuak hartu behar ditugu, ausartago jokatu; horretarako euskaldun izatearekin lotutako klitxeak apurtu behar dira eta eskuhartzea hartzaileen arabera finkatu (euskaldu nahi dutenak eta deseuskaldundu daitezkeenak bere behar dira.)

9.a) Gazteen artean alderdi emozionala -atxikipena- lantzeko guk gauzak agerian

uztea da egiten den proposamena: kontzientzia, bihotza, gogoeta...

Norbera konturatzea da gakoa. Baina interbentzioak ez dira bakarrik nerabezeroan egin behar, beste adin-tarte batzuetan egin behar dira, adibidez, 30 urte inguruko artean (hauek batzuetan ez daukate zein hizkuntzatan hitz egiten duten kontzientziarik ere ...)

9.b) Gazteen artean elkarrizketa elebidunak bultzatzeari dagokionez, hurrengo hausnarketa egin da:

Nerabeek naturaltasun osoz ikusi beharko lukete bi hizkuntza izatearena.

Hedabideek eredu hori zabaldu beharko lukete:

*Teleberrietan subtituluak jarritz

*Arrakasta programetan “reality”-ak euskara ere entzutea (subtituluak) ezinbestekoa da eredu hori bultzatzeko. Adibidez: gaztetxoek Julian Iantzi gaztelaniarekin lotzen dute bakarrik... zergatik ezin da euskara entzun bere programan, programa gaztelaniaz izanda ere? zergatik ez dute euskara egiten, naturaltasun osoz, euskara dakitenen artean, nahiz eta besteekin gaztelaniaz egin?

9.c) Hizkuntzari buruzko formazio eta informazio gehiago behar da. Txikitatik hasita, izan ere, prozesua progresiboa da.

Autoestimuan eragiteko TELP jolas moduan hartzea proposatzen da

10.a) Gazteekin orain arte ez da alderdi emozionala landu (eta hori oso lotua dago autoestimarekin), ez behintzat modu integralean. Eta gure ustez, oinarri emozional horretan daude hizkuntza-portaeraren gakoa. Hori lantzeko:

Hainbat diziplinaren araberrako azterketa egingo genuke, errealitate sozio-psiko-linguistikoa ezagutzeko.

Hurrengo urratsa gazteak erakartzea da, eta planaren diseinuan parte hartzera gonbidatu. Horretarako, komunikazio kanpaina on bat egin beharko genuke, esparru guztiak kontuan hartuta (eskola, ikastetxea, familia, elkarteak, txokoak...)

Hizkuntzarekiko atxikimenduari dagokionez, sentimenduaren eta erabileraren arteko koherentzia landu.

Erreferenteak eta lidergoa landuko genituzke (arrakastarako ezinbesteko tresna edo baliabideak direlako).

10.b) Gazteek kontsumitzen dituzten euskal hedabideetan egoera horiek (elkarrizketa elebidunak) “modu barregarri, original, esperpentiko...” batean errekreaztea.

1. fase baten helburua izango litzateke gazteak hizkuntza egoera horretaz ohartaraztea.

Hurrengo faseen helburua 1. fasearen ondorioen araberrakoa lirateke

11.a) Diagnosi egokiak, tokian tokikoak, nerabeen parte hartzearekin egindakoak, abiapuntuko egoera ondo zedarritzeko.

Zelako gazteak (ezaugarriak...)

Zer gura duten.

Nerabeon erreferenteak zein diren.

Nerabeon hizkuntza ohiturak eta hizkuntza gaitasun erreala.

11.b) Sentiberatzean eragin baina zuzenean helduengan ergaiez eta, nerabeengan zeharkako teknikak erabiliz. usteak aztertu eta haietan eragin... Nerabeen inguru hurbila osatzen duten helduengan arreta berezia jarritz.

11.c) Udalen eta herriko eragileen arteko koordinazioa landu eta bermatu. Udalak sustatu eta herriko elkarteek zuzenean eragitea litzateke egokiena. **Udalen eta herriko eragileen arteko koordinazioa... Nerabeek proposatu - Udalak sustatu - herriko elkarteek antolatu** nerabeen partaidetzaz eta **nerabeak protagonista** izanik. Aisialdi taldeetan partaide izatetik, **gidari izatera igarotzeko aukera** eskaini. **Euskara zehar-lerro** udal jarduera guztietan.

11.d) Hiztunen (nerabeen kasu honetan (hizkuntza gaitasuna hobetu (erregistroak...) eta euskaraz jarduteko arnas guneak bermatu eta ugaltu.

▪ Udal departamentuetatik eskaintzen den aisialdia

1.a) Udaletik egiten den edozein eskaintza formaletan (gizarte zerbitzuak, kirolak, gazteria, kultura) bermatu hizkuntza irizpideak txertatzea deialdietan. Irizpideak adostu bai euskara batzordeetan, bai dagokion sailean. Laguntzak eta erraztasunak emateaz gain, finkatutako irizpideen jarraipena eta ebaluazioa egin, hutsuneak identifikatu eta arduradunei hobekuntzak planteatzeko.

Neurri hau oinarri-oinarrizkotzat jo du taldeak, gutxieneko neurri modura alegia.

2.c) Euskara zehar lerroa da, beraz, kuadrilategi edo euskara zerbitzuko ekintzetan erabiltzen diren irizpideak udaletako gainerako zerbitzuetara ere zabaldu beharra ikusi da. Horretarako, udaleko zerbitzuei baliabideak eskaini behar dizkie euskara zerbitzuak, hau da, hizkuntz irizpideak, estrategiak, ikastaroak, argumentu eta koherentziaz jokatzeko jarduera guztietan.

Bide nekeza izan daiteke hau, baina ibili beharrekoa

4.a) Euskara Zerbitzuak zehar lerroa izan behar du. Udalak dagoeneko bideratzen duen aisialdi antolatuan hizkuntza-irizpideak ezarri eta irizpide horien jarraipena egin behar du. Langintza honetan motibazio-saioak premiazkoak dira bai gazteei baita hezitzaileei ere.

5.a) Lehenik eta behin, Udalak, Euskara batzordearen laguntzarekin, euskararen erabilera normalizatzeko irizpide argiak onartu beharko lituzke, eta gero, gazteekin harremanak dituzten udaletxeko gainerako atalekin harremanak estutu beharko lituzke, eta lana elkarrekin sarean egiteko bidea markatu.

Herriko eragileekiko elkarlana bultzatu beharko luke udalak gainera, eta gazteengan konfiantza jarri eta haiengan utzi ekintzak aurrera eramateko ardura.

Bestalde, antolatutako aisialdi eragiteko bideak ireki beharko luke Udalak, zeharkatasun lerroa landu, gazteen dendak, topalekuak.....

6.a) Elkarlana. Konpartimentuak gaindituz, gizarte sareak osatu elkarlanean aritzeko. Gune iraunkorretan sortu lanerako. Beharrezkoa da gazteengana iristeko. Euskarak zehar lerroa izan behar du

6.d) Hizkuntzari dagokionez liderrak diren gazteak identifikatu eta eurekin lan egin dezake udalak (dena delako departamentutik), eurek sare sozialen bidez inguru hurbileko harreman hizkuntzan eragiteko.

- **Udal departamentuetatik kanpo eskaintzen den aisialdia eta lagunartea**

3.a) Gazteen guneetara hurbildu (lonja...) autonomia eta babes eskainiz, zer nahi duten jakiteko.

Adibidea: lonjak kudeatzeko ordenantza egin: eskubide eta betebeharrak zehaztu. Lonjen jabeek komuna izango zaien ordenantza idaztea; eta, horretaz gain, gazteei diru laguntza bat ematea zerbait antolatzeko. Baina antolaketa bideratua izan beharko luke, hau da, gazteei ardura batzuk jarri behar litzaizkieke: ingurumena, berdintasuna eta hizkuntza adibidez.

3.b) sare sozialen bidez nerabeengan eragitea.

Adibidea: izar distirarekin tuentia urte osoan irekita eta erabilgarri.

3.c) Nagusien taldeak txikien taldearekin harremanetan jarri.

Adibidea: udaleku irekietarako alternatiba, etorkinekin, berbalagunekin.

4.b) Zirikatze-lana egin behar da gazte-taldeetako liderrekin gazte-taldeak beren sormenaz baliatuta aisialdi-ekintzak antolatu eta ekintza horien ardura har dezaten (promozioa egiteko sare-sozialak erabiliz adibidez). Udalak ekintza horiek aurrera eramateko baliabideak jarriko.

4.c) Sare sozialetan euskararen erabilera areagotzeko, edota erabilera sustatzeko lehiaketak antola daitezke. (SMS edo Piropoen lehiaketetan jarraitutako bidea erabiliz).

7.a) Sare sozialetan arrakasta handiagoa da gertuko pertsonen bidez egiten bada esku-hartzea. Hobe da elkarte moduan baino, hurbileko pertsona (begirale) moduan aritzea; euskalkia erabiltzeak gertutasuna eta era informala adierazten lagundu dezake.

7.b) Hizkuntza ez-formala landu, sortu (zuzentasunaren mamua uxatu) eta zabaldu behar da, nerabeei ereduak eta hitza emanez. Eskoletan hasi behar da hizkuntza ez-formalari tartea egiten: ekintza bat eurek “hizkera-gida sare sozialetarako” sortzea.